

**EUSKADIKO LAN SOZIEATEEN ELKARTEARI
GIZARTE EKONOMIA ZABALTZEKO
JARDUERAK EGITEAGATIK IZENEAN
ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA BAT ONARTZEN
DIEN FORU AGINDUA**

**ORDEN FORAL POR LA QUE SE CONCEDE UNA
SUBVENCIÓN DIRECTA NOMINATIVA A LA
AGRUPACIÓN DE SOCIEDADES LABORALES DE
EUSKADI POR LA REALIZACIÓN DE
ACTIVIDADES DE DIFUSIÓN DE LA ECONOMIA
SOCIAL.**

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburuetako bat enplegarritasuna eta laneratzea errazteko eta autoenplegua sustatu, jarduera independenteak sortzea ahalbidetu eta lanpostuak mantentzen eta sortzen laguntzen duten ekimenak bultzatzeko jarduera guztiak garatzea da.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene entre sus objetivos desarrollar todas aquellas actividades dirigidas a facilitar la empleabilidad, y la inserción laboral, así como impulsar aquellas iniciativas que fomenten el autoempleo, posibiliten la creación de actividades independientes y contribuyan al mantenimiento y creación de puestos de trabajo.

Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak (ASLE), 2023. urtean, lan-sozietatearen figura aberastasuna sortzeko tresna eta lanpostuak sortu eta mantentzeko, eta enpleguaren egonkortasunerako oinarriak dauzkaten enpresa bideragarri eta lehiakorrek sortzeko bide gisa zabaltzeko jarduera batzuk egin ditu.

La Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi, ASLE, realiza durante el año 2023 diversas actividades de difusión de la figura de la Sociedad Laboral como instrumento generador de riqueza y, como fórmula alternativa para la creación y mantenimiento de puestos de trabajo, para la creación de empresas viables y competitivas en las que se dan las bases para la estabilidad en el empleo.

ASLEk lan sozietateen berri emateko egindako jardueren artean GATZA izeneko argitalpena dago, hiru ale, hain zuzen ere; era berean, ezin ahanztu daiteke gizarte ekonomiaren arloan ematen den TXEMI CANTERA nazioarteko sariaren urteroko deialdia.

Entre las actividades de divulgación de las sociedades laborales que desarrolla ASLE, está la edición de tres números de la publicación GATZA, y la convocatoria anual del premio internacional TXEMI CANTERA de Economía Social,

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren iritziz, ASLEk interes handiko jarduerak egiten ditu eta ekonomia eta gizarte aurrerabideari laguntzen dio. Hala, egokia da 15.000.- euroko diru-laguntza ematea, GATZA aldizkaria argitaratzen eta Gizarte Ekonomiako Txemi Cantera nazioarteko saria ematen

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, considera actuaciones de gran interés las desarrolladas por ASLE, contribuyendo al progreso económico y social, siendo procedente la concesión de una subvención de 15.000.- euros con objeto de apoyar la publicación de la revista GATZA y el premio internacional TXEMI CANTERA de





laguntzeko.

Economía Social.

Proposatzen den laguntza maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 a) eta 26. artikuluekin bat ematen da. Artikulu horien bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan aurreikusten diren diru-laguntza izendunak zuzenean emateko prozedura arautzen da.

El otorgamiento de la ayuda propuesta se realiza conforme a lo establecido en los artículos 20.2 apartado a) y 26 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, que regulan el procedimiento de concesión directa de subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Zuzenean emango den laguntza horrek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren gainerako artikulatua bete behar du (foru arau horrek arautzen du Foru Aldundiak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra), aplikagarri zaion guztian, batez ere II. titulua, emandako diru-laguntzak itzularazteko araubidea arautzen duena, eta IV. titulua ("Diru-laguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak"). Halaber, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-arauak bete behar ditu.

Esta ayuda de concesión directa está sometida al resto del articulado de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral, en lo que le resulte de aplicación, y especialmente al Título II que regula el Régimen de Reintegro de las subvenciones concedidas, al Título IV, Infracciones y Sanciones administrativas en materia de subvenciones, así como a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común y al resto de normas de carácter administrativo aplicables..

Azaldutako guztiagatik, zure esku jartzen da hurrengo ebazpen proposamena

En virtud de lo expuesto se somete a V.I. la siguiente,

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCION

LEHENENGOA.- Diru-laguntza bat onartu eta ordainduko zaio Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteari (ASLE, IFK: G48156996), 15.000,- eurokoa, 0904/G/241116/45100 aurrekontu aplikaziorako kostura, 2017/0054 proiektua, 2023ko aurrekontua, 2023an GATZA aldizkaria argitaratzeari eta Gizarte Ekonomiako TXEMI CANTERA nazioarteko sariari dagozkien jarduerak finantzatzeko.

Diru-laguntza ebazpen hau onartu ondoren ordainduko da.

PRIMERO.- Conceder y abonar una subvención a la Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi, ASLE, C.I.F.: G48156996, por un importe de 15.000,- euros con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2017/0054, presupuesto 2023, para la financiación de las actividades correspondientes a la edición de la revista GATZA y al premio internacional TXEMI CANTERA de Economía Social en 2023.

El abono de la subvención se realizará tras la aprobación de la presente resolución.

BIGARRENA.- 2024ko otsailean, ASLE, Euskadiko Lan Sozietateen Elkartek, justifikazio-kontua aurkeztu beharko du eta kontu-auditoreak egindako txostena aurkeztu beharko du, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren

SEGUNDO.- La Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi, ASLE, deberá presentar en el mes de febrero de 2024, la cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, regulada en el artículo 57 del Reglamento Foral de subvenciones,





bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluan araututa dagoena. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregistroan aurkeztuko dira agiri hauexek:

- Egindako jarduerak eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jardueren deskribapen xehakatuarekin eta lortu diren emaitzak adierazten dituen.
- Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa; osagai hauek eduki behar ditu:
 - ✓ Diruz lagundutako jarduerari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera.
 - ✓ Gastuen egoera-orrian sartzen diren partidetako bakoitzean gastuen zerrenda sailkatua egingo da, eta bertan identifikatuta agertuko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, igorpen data eta ordainketa data.

Justifikazio hori Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ezarritako ereduari jarraiki aurkeztuko da, Excel formatuan; halaber, justifikazioak karpeta bakarrean egon beharko du, eta euskarri informatikoan aurkeztuko da.

- ✓ Merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten fakturen edo agirien fotokopia, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan sartzen direnak, eta ordainketa egin izanaren frogagiria.
- ✓ Sarreraren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen zerrenda xehatua, baita norberaren finantzaketa ere. Horietan

aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo que se presentará en el registro del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad por lo que se requiere la presentación de la siguiente documentación:

- Memoria de actuación justificativa de las actuaciones realizadas y del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con descripción detallada de cada una de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:
 - ✓ Un estado de gastos e ingresos imputados a la actividad subvencionada.
 - ✓ Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una relación clasificada de los gastos con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago

Esta justificación se presentará según modelo establecido por el Departamento de empleo Inclusión Social e Igualdad, en formato archivo excel, debiendo estar en una única carpeta y ser entregado en soporte informático.

- ✓ Fotocopia de las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a la que se hace referencia en el párrafo anterior, junto con la documentación acreditativa del pago.
- ✓ Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, relación detallada de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, que hayan financiado la actividad subvencionada, con





zenbatekoa eta jatorria aipatu behar dira.

- ✓ Hala badagokio, diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikulua arabera pertsona onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.
- ✓ Aplikatu ez den gerakinik egonez gero, haien itzulketaren ordainketa-gutuna.

Gastuak justifikatzen dituzten egiaztagirak eta dokumentuak erakunde onuradunak gorde egin beharko ditu, egin litezkeen egiaztapen- eta kontrol-jarduketetarako.

indicación del importe y su procedencia.

- ✓ Los tres presupuestos que en aplicación del artículo 29,3 de la Norma Foral de Subvenciones, en su caso, deba haber solicitado
- ✓ En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados

Los justificantes y documentos acreditativos de cada uno de los gastos se deberán conservar en poder de la entidad beneficiaria para las actuaciones de comprobación y control que se puedan realizar.

HIRUGARRENA.- ASLE, Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak egunean izan beharko ditu beteta zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itultzeari dagozkionak.

TERCERO.- La Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi, ASLE, deberá estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

LAUGARRENA.- ASLE, Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak behar beste jarduera azpikontratatu ahalko ditu diruz lagundutako jarduera gauzatzeko, 5/2005 Foru Arauaren 27. eta 29. artikuluei jarraikiz.

CUARTO.- La Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi, ASLE, podrá subcontratar cuantas actividades sean necesarias para la consecución de la actividad subvencionada de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005.

5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, ASLE, Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak, gutxienez, hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu diruz lagundu behar den gastua 40.000 eurotik gorakoa bada, lanak egiteko kostuaren kasuan, edo 15.000 eurotik gorakoa bada ekipamenduko ondasunen horniduraren edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek emandako zerbitzuen kasuan.

En aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, la Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi, ASLE deberá, como mínimo, solicitar tres ofertas de diferentes proveedores cuando el gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 15.000 euros en el caso de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica.

Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean aukeraturikoa; hartara, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren-beregi justifikatu behar da memorian, proposamenik merkeena egin duena hautatu ezean.

La elección entre las ofertas presentadas deberá aportarse en la justificación, y se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

BOSGARRENA.- Emandako diru-laguntza bateragarria da xede bererako Estatuko zein Europar Batasuneko administrazio eta erakunde publiko zein pribatuek edo nazioarteko erakundeek emandako beste edozein diru-

QUINTO.- La subvención otorgada es compatible con cualquier otra para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales de la Unión





laguntzarekin. Erakunde onuradunak beste organismo batzuek xede bererako eman edo ematen dizkioten laguntzen berri eman behar dio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, honek kontrolatu behar baitu emandako diru-laguntza, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batera, ez dela egindako jardueren kostua baino gehiago.

Baldin eta amaierako gastu justifikatuen zenbatekoa, diru-laguntza hau ez den beste edozein diru-sarrera kendu ostean, emandako diru kopurua baino gutxiago bada, doikuntza egingo da eta, soberakinik badago, itzuli egin beharko da, ezartzen diren moduan eta epeetan.

SEIGARRENA.- Diru-laguntza emateko erabiliko den aurrekontu-kreditua 4. kapituluko ("Transferentzia arruntak") eta 241116 programako kreditua da. Hortaz, funtsak ezingo dira erabili kreditu horri egotzi ahal zaizkion gastuez bestelako izaera eta helburua duten gastuetarako. Diru-laguntza ondoko gastuetarako erabil daiteke: GATZA aldizkaria argitaratzeari eta Txemi Cantera nazioarteko sareari dagozkien jarduerak eragiten dituzten gastuak, justifikazioaldia amaitu baino lehen ordaindun gero, baldin eta indarreko arauarekin bat badatoz.

Diruz lagundu daitezke GATZA aldizkaria argitaratzeari eta Txemi Cantera nazioarteko sareari dagozkien jarduerak era egokian gauzatzeko zailtasun barik beharrezkoak diren gastuak.

Gastu hauek ezin dute diru-laguntzarik jaso

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- Prozedura judizialen gastuak
- Zergak
- Diru-laguntza jaso behar duen jarduerari

Europea o de organismos internacionales. La entidad beneficiaria deberá informar al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las ayudas que por los mismos hechos hayan obtenido o puedan obtener de otros Organismos con el fin de comprobar que la subvención concedida, tenida en cuenta aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, no supere en ningún caso el coste de la actividad desarrollada.

Si el importe de los gastos justificados finales, una vez deducido cualquier posible ingreso diferente de esta subvención, resultase inferior a la cantidad otorgada, se procederá al reajuste correspondiente, debiéndose, en su caso, reintegrar el importe recibido en exceso en la forma y plazos que se establezca.

SEXTO.- El crédito presupuestario que ampara la concesión, es un crédito del capítulo 4 "Transferencias corrientes" del programa 241116 por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito. Se consideran gastos subvencionables a efectos de esta subvención, los gastos realizados y efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del período de justificación, que se ajusten a la normativa vigente, y hayan sido realizados con el fin de desarrollar las actividades correspondientes a la publicación de la Revista GATZA y las del Premio internacional Txemi Cantera.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de forma indubitada resulten necesarios para el correcto desarrollo de las actividades correspondientes a la publicación de la Revista GATZA y al Premio internacional Txemi Cantera.

No tienen la consideración de gastos subvencionables

- Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- Los Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Los gastos de procedimientos judiciales
- Los tributos
- Los gastos que no puedan identificarse





zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak edota xedatutako epean egiten ez direnak

- Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak
- Inbertsioak

inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido

- Los gastos de adquisición de licencias informáticas
- Las inversiones

ZAZPIGARRENA.- ASLEk jardueren edukia edo beraien garapen normala aldatzen duten gorabehera guztien berri eman behar du. Halaber, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari jarduerak egiaztatzen, jarraitzen eta kontrolatzen lagundu behar dio, ezarritako helburuak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

SEPTIMO.- ASLE deberá comunicar cualquier eventualidad que suponga una alteración del contenido o desarrollo normal de las actividades. Asimismo, deberá colaborar con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en los procedimientos de comprobación, seguimiento y control de dichas actividades con el objeto de garantizar el cumplimiento de las finalidades previstas.

ZORTZIAGARRENA.- Baldin eta ASLEk ez badu betetzen ebazpen honetan ezarritakoa, diru-laguntza eman den berariazko xederako erabiltzen ez badu, diru-laguntza aplikatu beharreko jarduketa egiten ez badu edo eskaeran azaldutako helburuetarako erabili duela frogatzen ez badu, diru-laguntza ondorioz gabe geratuko da eta erakunde onuradunak jasotako kopurua eta haren legezko interesak itzuli beharko ditu. Horrez gainera, bidezko ekintzak ere abiarazi ahal izango dira beraren kontra. Diru kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira legezko ondoretarako.

OCTAVO.- En el supuesto de que ASLE incumpliera lo establecido en la presente resolución, o no utilizara la subvención para el destino específico para el que se concedió, no realizase la actuación que dio origen a la subvención o ayuda o no justificase su aplicación a los fines determinados para los que se interesó, la subvención quedará sin efecto y la entidad beneficiaria vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

BEDERATZIGARRENA.- Elkartek ez dauka zertan jarri bermerik, ez baitago arriskurik ebazpen honen ondoriozko betebeharrak ez betetzeko.

NOVENO.- No será exigible la presentación de garantía por parte de la entidad beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones en ejecución de esta resolución.

HAMARGARRENA.- ASLEk behar bezala agertarazi behar du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren laguntza jaso duela horretaz baliatzen den ekintza guztietan, eta horretarako Sailaren jarraibideak aplikatuko ditu

DECIMO.- ASLE deberá hacer constar, convenientemente, la colaboración del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en las acciones que se desarrollen con financiación concedida por éste y siguiendo las instrucciones que el mismo le transmita.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, erakunde onuradunak II. tituluan publikotasun aktiboari dagokionez adierazitako betebeharrak bete behar ditu, betiere 2. artikuluan zehazten diren kasuetako batean badago. Erakunde

De conformidad con lo regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la entidad beneficiaria estará obligada, en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos





pribatuak, aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

ASLEk euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

ASLEk bere jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituen liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

HAMAIKAGARRENA.- Datu pertsonalen tratamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudian ezarri, eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarri denarekin bat egingo da.

Horrela, eman diren datu pertsonalak eta, horiekin batera, kontu justifikatibokoak dirulaguntzaren emakida justifikatzeko beharkizunak betetzen direla egiaztatzeko erabiliko dira eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza izango da tratamenduaren erantzukizuna.

Ez da datu pertsonalen lagapenik ezarri, legezko betebeharra edo estatistikako edo ikerkuntzako helburuetarako izan ezik, eta horrelakoetan pertsona ukituaren berariazko baimena beharko da.

Pertsona ukituek bere datuetara iristeko, horiek mugatzeko eta horien aurka azaltzeko eskubidea dute, horretarako idazki bat igorrita Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusira (Mazarredo zumarkalea, 63, 48009 Bilbo).

HAMABIGARRENA.- Erakunde onuradunek zintzo bete behar dituzte Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun

mentionados en el artículo 2: Entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

ASLE deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por ASLE para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

UNDECIMO.- El tratamiento de los datos personales se hará con sujeción a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, así como en la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y garantía de los derechos digitales.

De esta manera, los datos personales aportados junto con la cuenta justificativa se destinarán a comprobar el cumplimiento de los requisitos que justifican la concesión de la subvención, siendo la Dirección de Empleo del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad la responsable de su tratamiento.

No se prevén cesiones de datos personales, salvo obligación legal, o para fines estadísticos o de investigación con el consentimiento inequívoco de la persona afectada.

Las personas afectadas tienen derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento, enviando un escrito a la Dirección General de Empleo, sita en Alameda Mazarredo nº 63, 48009 Bilbao.

DUODECIMO.- Las entidades beneficiarias deben cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de mujeres y Hombres, en la Ley Vasca 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de mujeres y Hombres y en la Ley Orgánica 3/2007,





Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa.

1. Agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituen; berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.

2. Halaber, dirulaguntza honen xedeko jardura dela-eta egin daitekeen datu-aurkezpenean sexuen araberako bereizketa egingo da.

3. Erakunde onuradunak, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikularekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebeharrak horietatik salbuetsita egotea:

a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.

b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jardura gauzatzearekin lotutako materialetan.

c) Pantillan 250 langile baino gehiago dituzten

de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo.

1. Toda la documentación, publicidad imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

2. Igualmente, se realizará una desagregación por razón de sexo en la presentación de datos que se pudiera efectuar con motivo de la actividad objeto de esta subvención.

3. La entidad beneficiaria, de conformidad con el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones, deberá presentar informe justificativo de las siguientes circunstancias:

a) Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

b) Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.





pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

d) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatze eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

c) Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

d) Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

HAMAHIRUGARRENA.- ASLEk bere kabuz erabaki dezake diru-laguntza itzultzea.

Horretarako, beharrezkoa izango da aurretiaz jakinarazpena egitea Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Enplegu Zerbitzuari.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu ditu, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unea arte.

Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera.

Gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak dirua biltzeko prozedurari ekingo dio, eta norberaren borondatez ordaintzeko epea hasiko da.

HAMALAU GARRENA.- Diru-laguntza honen araubide juridikoari dagokionez, honako hauek hartu beharko dira kontuan: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Diru-laguntzei buruzko Erregelamendua (5/2005 Foru Arau garatzekoa) onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, ebazpen honetan jasotako erabakiak eta aplikatzekoak diren zuzenbide administratiboko

DECIMOTERCERO.- ASLE podrá efectuar la devolución de la subvención por propia iniciativa.

Requerirá una comunicación previa escrita al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Servicio de Empleo.

Cuando se produzca la devolución voluntaria, la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la beneficiaria.

La devolución de la subvención a instancia de la propia beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Posteriormente, el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia iniciará el procedimiento recaudatorio, abriéndose el periodo de pago voluntario.

DECIMOCUARTO.- En cuanto al régimen jurídico que regula la concesión de esta subvención, serán de aplicación la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, los propios acuerdos que incorpora esta resolución, así como a las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto,





gainerako arauak, eta, halakorik ez dagoenean, zuzenbide pribatuko arauak.

se aplicarán las normas de derecho privado.

HAMABOSGARRENA.- Foru Administrazioaren diru-laguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan arau-hauste administratibotzat jotzen diren ekintzen eta ez-egiteen erantzuleak bertan araututakoaren arabera zehatuko dira.

DECIMOQUINTO.- Los responsables de las acciones y omisiones tipificadas como infracciones administrativas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la administración foral, serán sancionados de acuerdo con la regulación establecida en la misma.

HAMASEIGARRENA.- Ebazpen honetan aurreikusi ez den guztirako, 5/2005 Foru Araua, urriaren 23ko 34/2010 Foru Araua eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak aplikatuko dira.

DECIMOSEXTO.- Para todo lo no previsto en la presente resolución será de aplicación la Norma Foral 5/2005 y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

HAMAZAZPIGARRENA.- Ebazpen erakunde interesdunari jakinaraztea, eta ebazpen hori zein hari buruzko ekonomi txostenak Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari helaraztea.

DECIMOSÉPTIMO.- Notificar la presente resolución a la entidad interesada y dar traslado de la misma y de los informes económicos correspondientes al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Sin./Fdo.: ZORIONE URIBARRI ORTIZ DE BARRON 2023-09-08
ENPLEGUA SUSTATZEKO ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE EMPLEO

Sin./Fdo.: MIREN ITXASO ALVAREZ MADARIAGA 2023-09-08
ENPLEGUA SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE EMPLEO

Sin./Fdo.: MARIA SUSANA GONZALEZ ROMULO 2023-09-11
ENPLEGUA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE EMPLEO

